

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko dituzun testuei lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Internet aprobetxatuta:

- ✓ **Sartu zaitetz** Osakidetzaren webgunean edo aplikazioan, eta **egin ezazu zerrenda bat**, han egin daitezkeen izapide edo tramite guztiak bilduta. **Eraman ezazu** zerrenda hori ikasgelara, eta **alderatu ezazu** ikaskideek egin dutenarekin.
- ✓ **Sartu zaitetz** Osakidetzaren webgunean edo aplikazioan, eta **egin ezazu honako proba hau**: eska ezazu euskaraz alde zaurretiko zita bat zeure medikuarekin, baina azken urratsa –datuak berretsi– egin gabe, benetan gaixorik ez bazaude, jakina!!!
- ✓ **Gehiago ordaindu beharko lukete? izeneko audio entzungo duzu**. Entzun ondoren, **audio labur bat** grabatuko duzu horren inguruan duzun iritzia azaltzeko, eta ikaskide bati bidaliko diozu.
- ✓ Geratu ikaskide batekin, eta banatu zuen artean **EiTBko bi saio hauek**. Ikus ezazue, nork berea, egin ezazue laburpentxo, eta **azal iezaiozue elkarri**.
 1. [Euskara osasungintzan](#) (*Tribuaren berbak* saioaren web-orrian, *Saio guztiak* atala).
 2. [Anorexia](#) (*Ur handitan* saioa).
- ✓ Oskorri taldeak **Buruko mina** izeneko kanta bat grabatu zuen 1997an *Marijane kanta zan!* izeneko diskoan. Marijane Minaberri idazle nafarraren hitzekin konposatutako abestiek osatzen dute diskoa. Kantuen hitzak, berriz, Ikas-ek 1965ean argitaratu zuen *Xoriak kantari* olerki bildumatik aukeratu zituzten gehienak. **Entzun ezazu kanta**. Ondoren, **bila ezazu** Interneten ea bestelako kantarik ote dagoen gaixotasun, eritasun edo gaitzei buruzkorik. Aurkituz gero, **eraman ezazu/itzazu ikasgelara**, eta **komenta ezazue** ikaskide batekin.
- ✓ Buruko mina dela-eta, **irakur ezazu zientzia.eus** web-orrian gaitz horri buruzko artikulua, **Zerk eragiten du buruko mina?** izeneko, eta komenta ezazu ikaskide batekin ea zer iruditu zaizuen azalpena (ulergarria/ulergaitza, argigarria/iluna...). Halaber, komenta ezazu ea zuek askotan izan ohi duzuen buruko minik eta, horrelakoetan, zer egin ohi duzuen mina arintzeko.
- ✓ IKAk **hainbat aplikazio** ditu euskara ikasteko. Horietako bat (**IKAPP Zaharrak berri**) gure esaerak eta esamoldeak ezagutzeko jolasa da: galdera sorta ahalik eta azkarren erantzun behar duzu, puntuazioa hobetzeko.